



Anoetako pasealekua, 5 - 20014 DONOSTIA
Tlf.: 943 45 17 57 Fax: 943 45 39 82
e-mail: gaf@euskalnet.net

GIPUZKOAKO IKASTETXEEI ETA KLUBEI

Donostia, 2011ko urtarrilaren 31.

Idatzi honen bidez GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOAK barkamena eskatu nahi dizue atzo, urtarrilak 30, Gipuzkoako Txapelketako sariak jasotzera podiumera igotzerik izan ez zenuten ikastetxe guztiei.

Lehenik eta behin gure ezinegona adierazi nahi dugu, sariak banatzean egin genuen akatsarengatik; izan ere, bereziki ahalegindu baikinaren aurten iazko hutsegiterik berriro gerta ez zedin.

Hala ere, hainbat arazo sortu zitzaizkigun ezustean. Programa informatikoak hasiera batean oker eman zizkigun sailkapenak, eta Nazioarteko Krosaren sari banaketa berez ere konplexua denez, hainbat akats gertatu ziren sari garaikur batzuk banatzean.

Ustekabeko horien ondorioz, berandutu egin zen eta ezin izan genuen sari banaketa amaitu.

Badakigu gurekin haserre egongo zaretela beharbada, eta horrexegatik, idatzi honen bidez barkamena eskatzeaz gainera, jakinarazten dizuegu otsailaren 6an Hernanin izango den krosean berriro eskatuko dugula barkamena, eta atzoko hutsegitea konpontzen saiatuko garela, lasterketen ondoren garaikurrak banatuta.

Barkamen eskaera hau onartuko duzuelakoan,

har ezazue agur bero bat.

Aratz Rodríguez Bilbao
GAFren idazkari nagusia.